

Guggenheim Urdaibai Stop plataformak errekurtsua jarri dio MITECOk BFaren eskariz Kostaldeari buruzko Legean egindako aldaketari

Urtarrilaren 19an, Guggenheim Urdaibai Stop plataformak errekurtsua aurkeztu zuen Auzitegi Nazonalean itsas-lehorreko jabari publikoaren mugaketaren berrikuspenaren harira.

2023ko urriaren 19ko Ministro Agindua murriztu egiten du gaur egun Astilleros Murueta SA dagoen kosta-zatiaren babes-zortasuna, 100 metrotik 20 metrora. Horregatik, proiektuaren aurka lanean diharduen plataformak Ministerioaren Aginduaren aurkako errekurtsua jarri du administrazioarekiko auzien egoitzan, agindu hori deuseztatzeko eta 100 metroko babes-zortasuna berriz deklaratzeko, Kostaldeari buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legean xedatzen den bezala.

Gogoan izan behar da Bizkaiko Foru Aldundia hainbat araudi aldatzen ari dela Guggenheim Urdaibai proiektuaren barruan aurreikusita dituen bi museoak biosfera-erreserbaren barruan kokatzeko, indarrean dagoen araudiak ez diolako proiektu museistikoarekin aurrera egiteko biderik ematen.

Alde batetik, babes-zortasuna aldatzeko eskariari buruzko ebazpenaren berri izan genuen iazko azaroaren 21ean: BFAk 2021eko urriaren 8an eskatu bezala, Trantsizio Ekologikoko Ministerioak (MITECO) onartu egin zuen babes-zorra 20 metrora murriztea. Hala, ontziolaren gaur egungo kokalekuan makroproiektuaren bigarren eraikina kokatzeko aukera ireki zuten. Horrekin, baina, ez zuten nahikoa; museoaren egoitzetako bat han eraikitzeko, ezinbestekoa zuten lurzorua kalifikazioa aldatzea.

Urrats hori urriaren 9an abiatu zuten: Muruetako Hiri Antolamendurako Plan Orokor (HAPO) berriaren proposamena argitaratu zuten Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (BAO). Horren arabera, ontziolaren kokaleku diren lursailak industria-lur izatetik ekipamendu-lur izatera igaroko lirateke. Aldaketa hori egitea lortuko balute, proiektuaren sustatzaileek beren asmoekin aurrera egiteko ezinbestekoak diren bi baldintzak beteko lituzkete: beharrezkoa den espazio fisikoa eta lurzorua kalifikazio egokia. Bigarren baldintza hori betetzen dutela eragozteko, Guggenheim Urdaibai Stop plataformak kalifikazio-aldaketa horren aurkako alegazioa aurkeztu zuen iazko abenduaren 11n.

Plataformak argi eta garbi adierazi nahi du gaur egun indarrean dauden legeekin ezinezkoa dela Guggenheim Urdaibai proiektua gauzatzea eta, beraz, proiektua legez kanpoko dela.

Gaur, urtarrilaren 22an, prentsa-ohar hau idazten ari garela, albiste berri bat iritsi zaigu. Bizkaiko Foru Aldundiko diputatu nagusi Elixabete Etxanobek eta Eusko Jaurlaritzako lehendakari Iñigo Urkulluk adierazi dute urte biko epea hartuko dutela Guggenheim Urdaibai proiektua bideragarria den aztertzeko. Plataformak argi dauka: gobernantza zakarki erabiliz, inposizioan oinarrituz eta herritarren lepo bururatutako proiektu bat ez da bideragarria. Karga-gaitasuna guztiz gainditua duen biosfera-erreserba batean lau hilabeteko epean 144.000 bisitari sartu nahi dituen proiektu bat ez da ez bideragarria, ez onargarria. Herritarren hasiera-hasieratik partaidetza albo batera utzi eta erabaki guztiak Guggenheim Fundazio pribatuaren esku uzten dituen proiektu bat ez da bideragarria. Eskualdeak dituen

beharrizan errealei ez ikusia egin eta museo pribatu baten beharrizanak lehenesten dituen proiektu bat ez da bideragarria.

Eskualdeak seriotasunez egindako proiektu sozioekonomiko bat merezi du. Horri dagokionez, Guggenheim Urdaibai plataformak proposamen zehatz bat du: Jarduera sozioekonomikoen egokitzapen eta garapenerako egitaraua (PADAS) berreskuratzea. Egitarau hori aho batez onartu zuen Eusko Jaurlaritzak, eta bada garaia behingoz horri heltzeko eta azkeneraino garatzeko.

Urte biko etenaldia ez da onargarria, hori ez da nahikoa. Plataformak lanean jarraituko du proiektua behin betiko bertan behera gelditu arte. Beharrezkoak diren urratsak emango ditugu, bai kalean, herritarren eskutik, bai epaitegietan, legea lagun duen bitartean.

Eta bitartean, bakoitzak bere ardurak bete ditzala: Astilleroak kutsatu dituen lurrak garbitu eta 5 urtez kontzesio barik okupatzen duen eremua padurari bueltatu diezaiola. Administrazioek, sarritan aipatzen duzuen bezala, Biosfera Erreserbaren errestituzioa eta naturalizazioa bultzatu eta naturari zor diotena bueltatu. Arduraz! 40 urtetan egin ez den bezala.

Guggenheim Urdaibai Stop!